

## Laburrak

### Baigerak Kantabriarako irteera antolatu du 17rako

**AZPEITIA** Baigera Jubilatuen Elkar-teak Santillana del Mar eta Comillas (Kantabria, Espainia) herrieta- ra egun-pasa antolatu du hilaren 17rako. Irteerako txartelak, hilaren 14tik 16ra artean salduko dituzte, Baigerako bulegoan. Irteeran parte hartzeko 30 euro ordaindu behar- ko dira pertsonako. Prezioan, joan- etorria eta bazkaria sartuko dira eta 68 lagunentzako tokia dago.

### Gandia-Iraurgi zuzenean emango dute webgunean

**AZPEITIA** Larunbatean Gandian (Valentzia, Herrialde Katalanak) Lan Mobil Iraurgik Zilarrezko LE- Berako igoera faseko finala jokatu- ko du, 19:00etan hasita. Iraurgi Saskibaloitako taldeak saskibaloitako partida bere webgunearen bidez zuzenean jarraitzeko aukera eskainiko du larunbatean, 18:45etik aurrera. Iraurgiren webgunea [www.iraurgisb.com](http://www.iraurgisb.com) da.

### Herriarteko finalerdia jokatu du gaur Azpeitiak

**AZPEITIA** Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketa Kutxa Sariako finalerdiko itzuliko partida jokatu- ko dute gaur Azpeitiak eta Donostiak, 22:00etan hasita, Azpeitiko Frontoi Txikin. Finalerdietako joaneko- an Azpeitiak 2-1 irabazi zion Donostiari. Finala, ekainaren 13an da Donostiako Atano III.-a pilotale- kuan. Beste finalerdia, Oiartzun eta Hernani ari dira jokatzeko.

### Erremonte txapelketako finalerdia gaur

**AZPEITIA** Azpeitiko XI. Erremonte txapelketako finalerdia jokatu- ko dira gaur, 18:00etan hasita, Iza- rraitz pilotalekuan. Sarrera bost euro da. Lehen finalerdia, Etxabe II.-ak eta Aizpurua II.-ak Etxeberria IV.-a eta Barrenetxea IV.-aren kontra jokatuko dute. Bigarren- goan, Matxin VI.-a eta Agirrezabala Matxin IV.-a eta Zubizarretaren kontra ariko dira.

### Salgai daude Sanjoanetako pilota partidarako sarrerak

**AZPEITIA** Urrestillako San Joan festen baitan, hilaren 18rako anto- latu duten pilota jaialdirako sarre- rak salgai daude, 30 eurotan. Oto, Ana Mari eta Auntxa tabernetan; 22:15ean da, Txikuri pilotalekuan. Lehen partida Olazabal eta Ladis Galarzak, Cecilio eta Idoateren kontra jokatuko dute; bigarrene- an, Gonzalez eta Laskurainek, Re- tegi II.aren eta Barriolaren aurka.

# Etorkizun ekimenean 93 ikasle etorkinek hartu dute parte

**Azpeitia** 2006an jarri zuten abian programa eta ikasturte ikasturte parte-hartzaile kopurua igotzen joan da

#### NEREA URANGA

Bukatzear den ikasturte honetan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 93 etorkinek hartu dute parte Etorkizun ekimenean. Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Euskara sailek herriko ikastetxeekin batera martxan jarritako ekitaldia da Etorkizun. Helburua haur eta gazte etorkinek

euskara ikastea eta herriko gizarte bizitzan errazago txertatzea da. Programaren nondik norakoak joan den astelehenean bukatu zituzten eta egun horretan ikasturte bukaerako festa egin zuten, Betharretako jolaslekuan.

Etorkizun programarekin herriko hiru ikastetxeetan egin dute lan (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarain, Azpeitiko Ikasberri Ikastolan eta Iraurgi Ikastetxean), taldeetan banatuta. Asteleheneetik ostegunera, 14:00etatik 15:00etara bitartean egin dituzte saioak, adinen arabera banatutako taldeetan. Haur Hezkuntzako 4. eta 5. mailakoak eta Lehen Hezkuntzakoak

dira saio horietan parte hartu duten ikasleak.

Etorkizun egitasmoa 2006an hasi zen ikasturtean jarri zuten martxan Azpeitian. Ikasturte ikasturte gero eta lagun gehiagok gartu du parte programan. 2006-2007 ikasturtearen hasieran 70 lagun hasi ziren parte hartzen martxan jarri berri zen programa berrian. Orduan, ikastetxeetan 62 ikasle eta Zapo Txoko gazte- lekuan zortzi gazte hartu zuten parte.

Joan den astelehenean egin zuten ikasturte bukaerako festan, ekimenean parte hartu dutenek elkar ezagutzeko aukera izan zuten.



Oier Iraolagoitia (ezkerrekoa), herenegun, Aizarnazabalgo podiumean. HITZA

## Epeldek, Iraolagoitiak eta Eizagirrek podiuma lortu dute

**Aizarnazabal** Euskadiko probarako txartela lortu dute txirrindulariek, Gipuzkoako erlojupekoan egindako lanari esker

#### ERREDAKZIOA

Herenegun arratsaldean txirrindularitzako Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketak jokatu zituzten Aizarnazabalen. Emakumeen elite eta jubentilek, eta gizonezko jubentilek Jose Larrarteren Oroimenezkoa lasterketaren baitan jokatu zuten Gipuzkoa mailako lehia. Emakumezko eliteen mailan Mireia Epelde Lointek taldeko azpeitiarrak bigarren bukatu zuen, Leire Olaberriaren atzetik.

Jubentiletan, Zarauzko Galdiano Eraikuntzak taldeko Oier Iraolagoitia iratarrak bigarren eta Jon Eizagirre zarauztarrak laugarren postua eskuratu zuten.

Gipuzkoako txirrindulari onenek bakarrik izaten dute lasterketa horretan lehiatzeko aukera. Denboraldia hasi eta joan zen asteko lasterketa bitartean lortutako puntuek ematen dute Aizarnazabalen izateko aukera. Eta, orain, Euskadiko Txapelketa lehiatu ahal izango dute Aizarnazabalen lehenengo lau postuetan sailkatutakoek. Euskadiko erlojuaren kontrako

txapelketa datorren larunbatean jokatu dute, Villatuertan (Nafarroa).

Jose Larrarteren Oroimenezkoaz gain, gizonezkoen elite eta 23 urtez azpikoen lasterketak ere jokatu ziren Aizarnazabalen. Kasu horretan, Caja Ruraleko Igor Romero izan zen lasterketako txapela irabazi zuena.

#### SAILKAPENA

### Gipuzkoako Erlojupeko Lasterketa. Jose Larrarteren Oroimenezkoa.

#### Emakumeak.

1. Leire Olaberria (Elite maila. Cepsa Euskadi) **00:21:45**
2. Mireia Epelde (Elite maila. Lointek) **00:24:31**
3. Dorleta Eskamendi (Jubentila. Tolosa) **00:24:36**
4. Irene Usabiaga (Jubentila. Tolosa) **00:24:57**

#### Jubentilak. Gizonezkoak.

1. Jon Ander Insausti (Caja Rural) **00:20:33**
2. Oier Iraolagoitia (Galdiano) **00:20:47**
3. Xabier Peñagarikano (Buruntzazpi) **00:20:53**
4. Jon Eizagirre (Galdiano) **00:20:57**



Etorkizun ekimenean parte hartu dutenak ikasturte bukaerako festa egin zuten joan den astelehenean. HITZA

Urola Kostako HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
[urolakosta@urola-kostakohitza.info](mailto:urolakosta@urola-kostakohitza.info) / Tel.: 943-89 00 17